



1. Gogoetan

Aurreko buletinean aipatutako [lehenengo aholkuari](#) helduko diogu beste egile baten eskutik, [Ana Garralón](#) irakasle eta kritikariaren eskutik hain zuzen. Berak idatzi eta kudeatzen duen [blogean](#), [Hurrekin beraien irakurketetaz solas egiteko arteaz](#) aholku batzuk ematen dizkigu.

Aholku hauek irakurrita, konturatzen gara modu xumeenean ere zenbat lagun dezakegun haurren irakurmena eta irakurzaletasuna garatzeko bidean.

Irakurri, solas egin, idatzi... dena ardatz baten inguruan?

2. Egitasmoa martxan

2011n *Bularretik Mintzora* egitasmoa martxan jarri zuten herrietan: Urkabustaiz, Laudio eta Arrasaten hasi dira ekimen berriak. Haur Hezkuntzako gela bakoitzean [motxila txikia](#) banatu da eta haurrak, gurasoen laguntzarekin, udal bibliotekara joaten dira liburu bat aukeratzera. Honek bazkide berrien kopurua ugartzen nabarmen laguntzen du, familien artean udal biblioteken aukera eta zerbitzuak ezagutzera emanez.

2012an Ean eta Abusun hasiko da Bularretik Mintzora kanpaina. Lehenengoan, egitasmoa egokitu da herri honen neurri ttikira, ekintzak mailakatuz. Bigarrean, bertako Osasun Zentroarekin eta Udal Bibliotekarekin elkarlanean garatuko da Bularretik Mintzora, emaginei eta orokorrean osasun zentroko profesional nahiz erabiltzaileei (gurasoei batez ere) formazioa eskainiz.

3. Hausnarketa gunea

Gure egitasmoaren ezaugarrietako bat eten gabeko ebaluazio bat egitea da: gurasoek, irakasleek eta bibliotekariak hartzen dute parte bertan.

Gurasoen galdekizunei dagokienez, herri batzuetan, bukaerako emaitzak jaso ditugu 2011n lehenengo aldiz [txosten](#) batean. Egitasmoaren eragina aztertu nahi izan dugu, gurasoen asmoak, ohiturak eta ezaupideak egitasmoaren eraginez eraldatzen ote diren egiaztatzeko.

Txosten horretatik, gurasoen irakurketarekiko balorazioak aldatzen ari direla nabarmendu nahi dugu.

Haur literaturaren balioari buruz galdetzen zaienean, *irakurketaren plazera eta honek sortzen dituen komunikazio uneak* azpimarratzen dituzte guraso askok bukaerako galdekizun honetan. Hasierako galdekizunean guraso gehiagok azpimarratzen zuten *irakurketak beziketan duen garrantzia*. Irakurketa plazerarekin lotzea aldaera garrantzitsua da, Haur Literaturaren helburuetako bat eduki onak forma atsegina eta artistiko baten bidez transmititzea baita. Horrela eginez gero, irakurtzeko grina sor daiteke, eta irakurmen maila hobetuz joango da, domino efektu baten pean.

4. Ongi pasatzeko!: Bat, bi, hiru, ale hop!

Oraingoan ere omenaldi txiki bat egin diogu [Kveta Pacovskari](#): 1992an Andersen saria jaso zuen europar ilustratzaile ospetsuari. Pragan sortu zen 1928an, bere ibilbidea pintore eta eskultore moduan hasi zuen, baina bere seme-alabekin jolasean haur liburuak ilustratzen hasi zen.

Kubismoaren haritik hasi zuen bere ibilbide artistikoa, kolorez beteriko irudi bereziak sortzen ditu, eta oso estilo nabarmena garatu du geometria eta grafismoa, kolore biziekin konbinatuz. Bere lan batzuk oso ezagunak dira, haur literaturaren hainbat klasiko ilustratu baititu: [Txano Gorritxo](#) edota [Pospolo saltzaillea](#)... Askotan, zenbakiak, letrak edota puntuazio ikurrak erabili ohi ditu haren joko grafikoak osatzeko. Zenbakiak bidez jolasteko sortu zuen liburu batez baliatu ginen Donostiako Orixe Ikastolan egin genuen saioan. Liburuaren izena [Bat, bi, hiru, ale hop!](#), eta, zenbakiak aitzakia hartuta, ederki pasa genuen bertan, hemen ikusten den bezala: [Bat, bi, hiru, ale hop!](#)